

UDALBURUA  
Gentza Alamillo

AIARAKO UDALAK 2018ko MAIATZAREN 17an  
EGINIKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA.

ZINEGOTZIAK

Iñigo Pinedo  
José Antonio Bartolomé  
Montse Angulo  
Susana Martín  
Lauren Uria  
Esteban Hernando  
Nerea Goti  
Iraida Saenz de Lafuente  
Iratxe Parro

Arespalditzan, udaletxeko bilkura-aretoan, bi mila eta hemezortziko maiatzaren hamazazpian, hemeretziak direnean, udalbatza osoa bildu da Ohiko Osoko Bilkura egiteko. Gentza Alamillo Udaeta alkate jauna da mahaiburua, eta albo batean aipatutako zinegotziak bertaratu dira, behar bezala deituta, Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 46 b) artikuluan xedaturikoaren arabera. Neuk, Naiara Lazpita Marcos idazkari andreak, lagundu ditut.

BERTARATU EZ

DIRENAK

Josu Artetxe

IDAZKARIA

Naiara Lazpita

Alkate jaunak Osoko Bilkurara ongietorria eman die denei, eta besterik aipatu gabe eguneko aztergaien zerrendako gaiak bozkatu eta eztabaidatu dira:

**1º.- Onestea, bidezkoa bada, 2018ko apirilaren 24an eginiko ohiko osoko bilkuraren akta.**

Iratxe andreak (Aiara Batuz) esan du apirileko osoko bilkuran bertan zegoela.

Iraida andreak (Aiara Batuz) esan du berak hitz egiten duen Galde-eskeen lehen puntuan, azken esaldian, hau hartzen duenean: "(...) eta jakin nahi du ea zergatik iritsi zaien deialdi hori", hau jarri beharko luke "(...) eta jakin nahi du ea zergatik ez zaien iritsi deialdi hori.

Ez da horren inguruko beste adierazpenik egin eta bertaratutako Udalbatzako kideek aho batez onetsi dute akta (11 zinegotzietatik 9).

**2º.- 2018/183 Alkatetza Dekretua berrestea, administrazioarekiko 233/2018-B errekurtsioan (ohiko prozedura) demandatu moduan bertaratzeko. Maderas Zerrabe, SLk jarri du, 10/01/08eko 51/18 Alkatetza Dekretuaren kontra. Dekretu horren bidez azaroaren 9ko 518/17 Alkatetza Dekretuari jarritako berrezartzeko errekurtsioa atzera bota zen.**

Ez da gaiari buruzko ezer esan eta bozketa egin da. Bertaratutako Udalbatzako kideek aho batez onetsi dute (11 zinegotzitik 9).

**3º.- Onestea, bidezkoa bada, Arabako Foru Aldundiari Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuaren gainean egindako kudeaketa-aholkua eta eskuduntzak ordezkatzekoa, kudeaketa administratiborako.**

Nerea andreak (Bildu) aipatu du bere taldeak kontra bozkatuko duela hitzarmenak ez diolako aukerarik uzten kudeaketa zuzenari, Bizkaiko eta Gipuzkoako beste zenbait Udaletan egiten ari diren moduan (adibidez, Donostian eta Hernanin). Kudeaketa zuzeneko eredu horietan, erabiltzaileko 2 eurora

txikitzen dira ordainketak, eta eskaerak ebazteko epeak 8 egunekoak dira, batez beste; Araban, gehitu du, askoz ere luzeagoak dira.

Gainera, ordenantza eta araudia ez daude onetsita; beraz, alegaziorik balego, hitzarmenaren baldintzak aldatu ahal izango lituzke. Era berean, aldatu ahal izango litzateke langileek beren aldarrikapenak eskuratzen badituzte.

Nerea andreak (Bildu) gehitu du hitzarmena lau urterako dela, eta hurrengo legegintzaldia hipotekatzen ari direla.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) erantzun du irizpidea lau urterakoa dela, urte horietarako lizitatuko baita zerbitzua. Gehitu du ez direla beste aukera batzuk baztertzen; Aldundiak proposamen bat egiten du eta udalak burujabeak dira bat egiteko eta Aldundiari agintzeko edo ez. Udalak erabaki lezake bere bitartekoen bidez ematea.

Nerea andreak (Bildu) galdetu du ea zerbitzua Udalak berak egingo duen, eta nola antolatuko litzatekeen finantzazioa.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) erantzun du Aiarari dagokiona eskualdatu egingo luketela, baina ez dakiela zenbat den. Udal bakoitzak baloratu behar du ea bere bitartekoen bidez eman nahi duen, edo Aldundiari agindu. Baina kontuan hartu behar da zenbat eta txikiagoak izan zerbitzuaren loteak, orduan eta baldintza okerragoetan esleituko direla.

Iraida andreak (Aiara Batuz) esan du ezin dugula geure Udala Hernanikoarekin alderatu, 20.000 biztanle baitituzte, eta 26 milioi euroren aurrekontua. Hemen, daukagun aurrekontuarekin, ezin dugu zerbitzua estali haiek egin moduan. Orduña eta Orozkori erreparatuta, gurearen antzeko udalerriak biak, ordubete besterik ez diote ematen familia bakoitzari. Gehitu du zalantzan jartzen dutela Aiarak bere bitartekoen bidez zerbitzua bete ahal izatea, orain ematen ari diren baldintza berdinetan. Gainera, langile eskusibo bat beharko genuke zerbitzua kudeatzen eta gainbegiratzen.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) esan du Foru Institutuan badagoela nahiko langile zerbitzu horren kudeaketa bere gain hartzeko. Gehitu du egun Udalak ezin duela bere bitartekoekin bakarrik zerbitzua kudeatu, orain ematen ari diren eraginkortasunarekin eta baldintzekin.

Iraida andreak (Aiara Batuz) adierazi du haiek zuzeneko kudeaketa planteatzeko aukera azter dadila eskatzen dutela, baina nahikoa baliabiderek.

Inork ez du horri buruzko ezer esan; beraz, gaiari buruzko bozketa egin da eta hau izan da bozketaren emaitza:

Aldeko botoak: 6 (4 EAJ+ 2 Aiara Batuz)

Aurkako botoak: 3 Bildu

Hori dela bide, eta

**IKUSI DA.-** 12/2008 Legearen (abendua 5koa, Euskadiko Gizarte Zerbitzuei buruzkoa) 22. artikulua ezartzen duela Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua Udal eskumen bat dela, eta ahalmen eta eginkizun asko ematen dizkiela, udalerrin honetan oso zailak direnak gauzatzeko, tamaina eta herritar kopuru txikiagatik ez baitaude nahikoa azpiegitura zerbitzu hori eraginkorki emateko; gainera, horrek eragingo luke etxez etxeko laguntzak zerbitzuaren intentsitatea eta kalitatea Lurralde Historikoko gainerako lekuetakoa bezalakoa ez izatea.

**IKUSI DA.-** Udalak azpiegiturretan dituen gabeziak osatzeko, lurralde osoan zerbitzua eraginkorra izan dadin mekanismoak emateko, eta lortzeko lurralde osoko herritarrek gizarte-zerbitzu

hau intentsitate eta kalitate berberarekin jasotzea, exekuzio eta baliabide ekonomikoen kudeaketa eraginkor eta optimoarekin, komenigarria da lankidetzaz-esparru bat sortzea Arabako Foru Aldundiaren eta Udal honen artean, udal-eskumenak diren zenbait eginkizun betetzeko eta zerbitzua osorik emateko.

**IKUSI DA.-** Foru Aldundiaren eta Aiarako Udalaren arteko etxez etxe laguntza-zerbitzuaren eskumenak eskualdatzeko eta kudeaketa-agindurako hitzarmena, Arabako Lurralde Historiko guztiei aurkeztua, harekin bat egin dezaten.

**IKUSI DIRA.--** Urriaren 1eko Sektore Publikoko Kontratuen 40/2015 Legearen 47. artikulua eta hurrengoak.

**IKUSI DA.-** 7/85 Legearen (Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituena) 47.2.h artikulua ezarritakoari jarraikiz, legezko kideen gehiengo osoaren baiezko botoa behar da eginkizunak eskualdatzeari edo beste administrazio publiko batzuen jardueri dagozkien erabakiak hartzeko.

**AINTZAT HARTU DA.-** Berdintasun eta Immigrazio informazio-batzorde soziosanitarioak 2018ko maiatzaren 8an emandako irizpena-

Udalbatza Osoak, gehiengo osoz, **ERABAKI DU:**

**LEHENENGOA.-** Arabako Foru Aldundiaren esku uztea Aiarako Udalak Etxez Etxeko Laguntza zerbitzuan dituen eskumenak, eta erakunde horri eskatzea zerbitzu hori osorik kudea dezan.

**BIGARRENA.-** Arabako Foru Aldundi txit gorenaren eta Aiarako Udalaren artean sinatu beharreko lankidetzaz-hitzarmenaren testua onestea; haren bidez formalizatuko da etxez etxe laguntza zerbitzuaren kudeaketa agindua bi erakundeen artean, eta haren testu bakarra eranskinean atxiki da.

**HIRUGARRENA.-** Akordio honen ziurtagiri bat bidaltzea Arabako Foru Aldundiari, kudeaketa-agindua onar dezan, hitzarmena sinatu aurreko pausotzat.

#### **4º.- Maiatzaren 17ko adierazpen instituzionala, LGTBIQfobiaren aurkako egunekoa.**

Gentza jaunak (EAJ-PNV) Aiarako Kuadrillan onetsitako adierazpena irakurri du. Talde guztiek adostutakoa da, eta 2018/05/08ko Berdintasunaren eta Immigrazioaren informazio-batzorde Soziosanitarioan aztertu zen, eta hau da testua, hitzez hitz:

**MAIATZAREN 17KO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA, LGTBIQFOBIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNEKOA.**

*Maiatzaren 17a LGTBIQfobiaren aurkako Nazioarteko Eguna dela eta, Aiarako Udalak dibertsitate afektibo eta sexuala zein genero identitate anitzak ospatzen dituen eskualdea aldarrikatu nahi du, heterosexualitatea araua ez den eskualdea, LGTBIQ kolektiboari egindako erasoak zigorrik gabe uzten ez diren eskualdea. LGTBIQfobiak ez du soilik pertsonen askatasuna arriskuan jartzen, baita gizarte osoaren ongizatea ere.*

*Gaur, Udalak hitzematen du Eskubide Sexualen Adierazpen Unibertsala aldeztu eta sustatuko duela, bai eta Nazio Batuen Erakundeko Giza Eskubideen Kontseiluak 2014ko irailaren 26an onetsitako ebazpena ere, eta gure elkartasuna adierazten dugu publikoki munduko hainbat lekutan sexu orientazioarengatik eta genero identitatearengatik jazarpena, tortura eta bazterkeria jasaten dutenekin.*

*Era berean, Aiarako Kuadrillak bere gain hartzen du sexualitate, genero eta desio anitzak ikusarazteko konpromisoa, eta LGTBIQ taldekoen kontrako diskriminazioari, estigmatizatzeari eta bortizkeriari aurre egitekoa, berdintasun politika publikoaren bidez.*

*Hala, Kuadrillak sexu eta genero aniztasunaren gaia lantzen jarraituko du:*

- *Etxaurren Ikastolarekin eta Guraso Elkartearekin dugun hezkuntza-programaren barruan.*
- *Aiara Berdintasunaren Alde-rekin batera, hitzaldiak eta erakusketak antolatuko ditugu gaiaren inguruan, herritarrak kontzientziazteko.*
- *Saraube aldizkariaren bidez, herritarrak informatuko dira LGTBIQfobiari aurre egiteko dauden bitartekoaren gainean.*
- *Eta, azkenik, iaz egin genuen moduan, Administrazio Batzordeekin harremanetan jarraituko dugu, jarduerak elkarrekin egin eta zabaltzeko.*

*Amaitzeko, dei egiten diegu herritarrei Aiaraldean maiatzaren 17ko kanpaina dela eta, antolatutako ekintzetan parte hartzera.*

Nerea andreak (Bildu) ekarpen batzuk egin ditu, LGTBI kolektiboaren aldarrikapenak jasotzen dituztenak; hauek dira:

## **“MAIATZAREN 17A, TRANSFOBIAREN, LESBOFOBIAREN ETA HOMOFOTIAREN AURKAKO EGUNA**

***Testuinguruari dagokionez, honako hausnarketa hauek sartzea proposatzen dugu:***

*Gure gizartean, LGTBI+fobia dago oraindik ere, eta eraso asko daude; horietako asko, gainera, ez dira jakiten, bazterkeriari eta ikusezintasunari eta LGTBI+ pertsonen sufritzen duten estigmaren ondorioz. Erasoak espazio guztietan gertatzen dira, bai arlo publikoan eta bai pribatuan, kalean, eskoletan, enpresetan, batzuetan jendaurreko arreta-zerbitzuetan...eta ahaztu gabe askotan ikusi ditugula Eliza katolikoko bozeramaileak jarrera LGTBI+fobikoak izaten.*

*Nabarmentzekoa da Nafarroako gobernuak azken urteetan izan duen ibilbide eredu-garria: 2009an, aitzindaria izan zen, lege bat onetsi baitzuen transexualen eskubideak aitortu eta babesten dituen, eta, ondoren, hainbat neurri eta arau jarri zituen martxan eraginkor bihurtzeko.*

*Jarraitu behar dugu, arduraz, LGTBI+ mugimenduaren eta mugimendu feministaren proposamen eta beharrezko erantzuten. Ezin dugu ahaztu kalteberen diren kolektiboek babes berezia merezi dutela (adinekoak, migratzaileak, haurrak eta nerabeak...).*

*Azkenik, egun honetan Ekai Ondarroako nerabearen heriotza gogoratu nahi dugu, guztiz onartezina dena gizarte aurreratu eta demokratiko batean. Gure konpromiso irmoa berresten dugu halakorik berriz gerta ez dadin.*

*Xedapenezko zatian, konpromiso hauek proposatzen ditugu mozioari gehitzeko:*

*1. Udal honek beharrezko pausoak jarriko ditu martxan LGTBI+ pertsonen kontrako indarkeriaren protokolo bat egiteko, betiere LGTBI+ kolektiboekin koordinatuta, Aiara*

*Berdintasunaren Alde tokiko foroarekin eta mugimendu feministarekin koordinatuta, eta haien proposamenak jasota.*

*2. Udal honek Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio ez ditzala indar polizialak erabili cruising-a egiten dutenen askatasuna mugatzeko.*

*3. Udal honek homosexualen konbertsio-terapien aldeko jarrera indibidual eta kolektiboak gaitzesten ditu, eta Euskal Jaurlaritzari eskatzen dio har ditzala beharrezko neurriak haiek debekatzeko.*

*4- Udal honek Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio sar ditzala modu koordinatu eta osoan (bitarteko eta segimendu beharrezkoak zehaztuta) bai hezkuntza sexu-afektiboa eta bai LGTBI+ gaiak, betiere ikuspegi feminista batetik eta adituekin, LGTBI+ kolektiboekin eta mugimendu feministarekin koordinatuta.*

*5.- Udal honek Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio egin dezala diagnostiko bat, 6 hileko epean, Euskal Autonomia Erkidegoko LGTBI+ pertsonen eskubide-urraketak identifikatzeko, eta, diagnostiko horretatik abiatuta, egin dezala plan bat Berdindu-ren ardatz estrategikoak eta helburuak jasotzen dituen.*

*6. Udal honek Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio sor dezala zuzendaritza bat Enplegua eta Gizarte Politika Sailean, Berdidun-ren politikak orientatzeko.”*

Iraida andreak (Aiara Batuz) dio adostasuna lortu beharko litzatekeela.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) adierazi du ez zekizkiela Nerea andreak egindako ekarpenak.

Azkenik, udalkideek adostu dute bozkatu den mozioa 2018/05/08ko Berdintasunaren eta Immigrazioaren informazio-batzorde Soziosanitarioan aurkeztutakoa izatea, Bilduko Nerea andreak egindako ekarpenak gehituta; hau da emaitza:

"1. Udal honek beharrezko pausoak jarriko ditu martxan LGTBI+ pertsonen kontrako indarkeriaren protokolo bat egiteko, betiere LGTBI+ kolektiboekin koordinatuta, Aiara Berdintasunaren Alde tokiko foroarekin eta mugimendu feministarekin koordinatuta, eta haien proposamenak jasota.

2. Udal honek Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio ez ditzala indar polizialak erabili cruising-a egiten dutenen askatasuna mugatzeko.

3. Udal honek homosexualen konbertsio-terapien aldeko jarrera indibidual eta kolektiboak gaitzesten ditu, eta Euskal Jaurlaritzari eskatzen dio har ditzala beharrezko neurriak haiek debekatzeko.

4. 4- Udal honek Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio sar ditzala modu koordinatu eta osoan (bitarteko eta segimendu beharrezkoak zehaztuta) bai hezkuntza sexu-afektiboa eta bai LGTBI+ gaiak, betiere ikuspegi feminista batetik eta adituekin, LGTBI+ kolektiboekin eta mugimendu feministarekin koordinatuta.

5. Udal honek Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio egin dezala diagnostiko bat, 6 hileko epean, Euskal Autonomia Erkidegoko LGTBI+ pertsonen eskubide-urraketak identifikatzeko, eta, diagnostiko horretatik abiatuta, egin dezala plan bat Berdindu-ren ardatz estrategikoak eta helburuak jasotzen dituen.

6. Udal honek Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio sor dezala zuzendaritza bat Enplegua eta Gizarte Politika Sailean, Berdidun-ren politikak orientatzeko.”

Adierazpen instituzional hori bozkatu da, eta bertaratutako udalkideek aho batez onetsi dute (Udalbatzako 11 zinegotzietatik 9k).

**5º.- Ondorerik gabe uztea, bidezkoa bada, 2018ko martxoaren 22ko osoko bilkuran hartutako erabakia, Arabako Foru Aldundiaren eta Aiarako Udalaren arteko lankidetzahitzarmena, dokumentuak erregistratzearen gainekoa, eta onestea, bidezkoa bada, Arabako Foru Aldundiaren eta Aiarako Udalaren arteko beste lankidetzahitzarmen bat dokumentuak erregistratzeko.**

Inork ez du horri buruzko ezer esan; beraz, gaiari buruzko bozketa egin da eta hau izan da bozketaren emaitza:

Aldeko botoak: 6 (4 EAJ-PNV+ 2 Aiara Batuz)

Abstentzioak: 3 Bildu

Hori dela bide, eta

**IKUSI DA.-** 2018ko martxoaren 22ko osoko bilkurako erabakiz, Arabako Foru Aldundiaren eta Aiarako Udalaren arteko lankidetzahitzarmena, agirien erregistroari buruzkoa, onetsi zela.

**AINTZAT HARTU DA.-** Arabako Foru Aldundiko Ahaldunen Batzordeak nabarmen aldatu duela aipatutako hitzarmenaren testua.

**AINTZAT HARTU DA.-** 39/2015 Legeak (urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena) eta 40/2015 Legeak (urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena).

Udalbatza Osoak, gehiengo osoz, **ERABAKI DU:**

**Lehenengoa.-** Ondorerik gabe uztea, 2018ko martxoaren 22ko osoko bilkuran hartutako erabakia, Arabako Foru Aldundiaren eta Aiarako Udalaren arteko lankidetzahitzarmena, dokumentuak erregistratzearen gainekoa.

**Bigarrena.-** Onestea Arabako Foru Aldundiaren eta Aiarako Udalaren arteko lankidetzahitzarmenaren beste testu bat, agirien erregistroari buruzkoa.

**Hirugarrena.-** Alkate jaunari eskumena ematea hitzarmena sinatzeko.

**Laugarrena.-** Akordio honen berri ematea Arabako Foru Aldundiari, jakin dezan eta ondorioetarako.

**6º.- Onestea, bidezkoa bada, Menagarai-Beotegiko HUAPen (Zuhatzako Ibaguen auzoan dago kokatuta) kudeaketa-, mantentze-, esplotazio- eta berritze-agindua, eta, era berean, ondoren hori guztia Kantauriko Urkidetza Ur Patzuergoari agintzea.**

Ez da gaiari buruzko ezer esan eta bozketa egin da. Bertaratutako Udalbatzako kideek aho batez onetsi dute (11 zinegotzitik 9).

Hori dela bide, eta

**IKUSI DA.-** MENAGARAI-BEOTEGIko administrazio-batzordeak Menagarai-Beotegiko HUAPen proiektuaren obrak sustatu zituela. STOA SLPUk idatzi zuen proiektua, eta 2013. urtean onetsi zen. URA ur-agentziaren argibideei jarraituta, beste hondakin-uren araztegi baten proiektua egin zen, ikastolari eta igerilekuen aldagelei zerbitzu emango ziena, Udalaren jabetzakoak, baita Menagarai-Beotegiko etxebizitza batzuei ere, eta ikastolari zerbitzu ematen zion Udalaren araztegia ordezkatzeko zuena.

**IKUSI DA.-** Obrak exekutatzen Foru Aldundiaren obren eta zerbitzuen foru-planaren diru-laguntza bat eskuratu zela, eta diruz lagundu ez zen zatiari dagokionez, Udalarekin ados jarri zen finantzaketan laguntzeko, aipatutako araztegian jasotako hondakinen bolumenarekin proportzioan; Udalak % 87,1 eta administrazio-batzordeak % 12,9.

**IKUSI DA.-** Elkarrizketak izan direla zerbitzuaren kudeaketa eta instalazioen mantentzearen eta kontserbazioaren gastuen parte-hartzea negoziatzeko, bi administrazioen jabetza baitira (orain arte, erakunde bakoitzaren hondakinen bolumenaren arabera proportzionalki hartu dituzte bere gain), eta Udalak administrazio-batzordeari helarazi diola interesa duela instalazioa Kantauriko Urkidetza Ur Partzuergoak (KUUP) kudea dezan, Udala partzuergoan baitago, eta eskatua dio partzuergoari kudeaketa, mantentzea, esplotazioa eta banaketako sareak berriz ezartzea. Jabetza Udalarena da, kudeaketa-agindu irudiaren bidez.

**IKUSI DA.-** 2017ko otsailaren 23ko osoko bilkuran, Aiarako Udalak onetsi egin zuela KUUPi eskatzea kudeaketa, mantentzea, esplotazioa eta banaketako edo bigarren mailako sareak berriz ezartzea, baita abonatuak kudeatzea eta Murgako industrialdeko tarifak ezartzea ere, kudeaketa-agindu irudiaren bidez, eta, horretarako, I. eranskin moduan atxiki zen agindu-hitzarmena onetsi zen, baita hura martxan jartzeko bide estrategikoa ere, II. eranskinean jasotakoa, jarduketa-planean datorrena, eta industrialdeko sareen inbentarioa ere bai. Adostu zen, Udalak azpiegiturak berritzeko plana eta beharrezko finantzazioa egin eta aztertuta, behin betiko aginduaren inguruan Udalak konpromisoa hartuko zuela.

Eta interes publikoak aholkatzen duela, eraginkortasun arazoak direla eta, KUUP izatea Udaleko zerbitzu-sarea kudeatzen duena, eta betetzea hasierako konpromisoa KUUPi kudeaketa eskatzeko, 2017an onartua, Menagaraiko HUAP gehituz.

**IKUSI DA.-** KUUPekin elkarrizketak egon direla eta azken horrek ahoz adierazi du kudeaketa, mantentzea, esplotazioa eta berritzea onartzeko asmoa. Hori egingo da aipatutako etxebizitzan bai altako sarean, HUAP, bai baxuko sarean eta abonatuaren kudeaketan, Partzuergoaren berezko tarifekin eta kudeaketa-aginduen irudiaren bidez. Gainera, KUUParen ordenantza fiskalean finkatutako tarifa aplikatuko da, Administrazio-batzarrak Udalean aipatutako kudeaketa delegatzen badu, horrela azken horrek, aldi berean, KUUPera delegatzeko haren partzuergoko erakunde bezala.

**IKUSI DA.-** Menagarai-Beotegi Udaltzatzen 2018ko martxoaren 24ko hitzarmena. Horren bidez, Udalari eskatu zaio kudeaketa-aginduen irudiaren bidez bere gain hartzeko Menagarai-Beotegiko HUAPen, bertara lotutako bigarren mailako edo baxuko sarearen kudeaketa, mantenua, esplotazioa eta berritzea. Sare horrek zerbitzua ematen die Menagarai-Beotegi 9 etxebizitzari, ikastolari eta udal-igerilekuei. Gainera, Udalak abonatuaren kudeaketa bere gain hartzea ere nahi da, eta baita uraren ziklo integrala ere.

Hori guztia, Udalaren kudeaketarako ondorengo aginduari begira, Kantauriko Urkidetza Ur Partzuergoaren (KUUP) erakunde bezala. Horrela, Udalak bere gain hartuko uraren ziklo integrala eta haren ardura izango da altuko eta baxuko saneamendu-sarea kudeatzea. Horretarako, jakinaraziko zaizkio isurtze-sariaren titulartasuna eta abonatuaren eta bilketaren kudeaketa eta zuzenean bidaliko zaizkie hornikuntza eta saneamendu tarifak Menagarai-Beotegiko etxebizitzaren erabiltzaileei, HUAPi lotuta daudenak. Gainera, tasak likidatuko dira Partzuergoaren dagokion ordenantza fiskalak zehazten duen neurrian eta etxebizitza horiek eta Udalekoak (partzuergoaren kide da) modu berean tratatuko dira. Kudeaketa egiteko agindutako epea 15 urtean ezarriko da, bost urteko epean luza daitekeena, alde guztiak ados badaude.

**HAU GERTATU DA.-** Menagarai-Beotegiko HUAPek kudeatutako hondakinen bolumena dela eta, Udalari dagokiola gehien bat (%87,1) eta azken hori partzuergoaren kide denez, onargarria da Administrazio-batzordeak egindako KUUPekin ahoz adostutako proposamena, eraginkortasun arrazoiengatik, Menagarai-Beotegiko HUAPen saneamendu-sarearen kudeaketa eraginkorra egin ahal izateko, eta abonatuaren kudeaketa tarifa berdina ezarri. Izan ere, KUUPeko konpromisoa hartu du Menagarai-Beotegiko etxebizitzaren erabiltzaileei kobratuko dien tarifa eta Udalari kobratuko diona berdina izango direla, Batzordea partzuergoaren kide ez den arren.

Hori guztia kudeaketaren aginduak konpetentziari titulartasuna ematea suposatuta barik, ezta haren jardutearen funtsezko elementuak ere, eta Administrazio-batzordeak mantenduko ditu udalerriaren saneamendu-sarearen kudeaketa, mantenua, esplotazioa eta berritzea.

**HAU GERTATU DA.-** Estolderia zerbitzua edo baxuko sarea modu egokian kudeatzeko, ... (9) etxebizitzetara doana, kontadorea instalatu behar da. Kontadore horretan, kudeaketari dagokion ur-bolumena kontabilizatu behar da, Menagarai-Beotegi auzoko etxebizitzaren saneamendu-zerbitzuaren funtzionamendurako. Izan ere, KUUP, saneamendu-zerbitzuaren kudeatzailea den bezala, aipatutako ur-konsumoari dagokion tasa gehitu beharko du, Menagarai-Beotegi Administrazio-batzordearen ur-horniketaren ordenantza fiskal arautzailearen arabera.

Hori dela eta, Udalbatzak horren instalazioa onartu du Partzuergoaren zerbitzu teknikoek zehazten duten lekuan eta instalazioa Partzuergoak berak ordaindu beharko du.

**HAU GERTATU DA.-** Halaber, egokitzat jotzen da Udalari jakinaraztea Udalbatzari HUAPen eta tutueriaren (alde batetik ikastolara eta udal-igerilekuetara doa eta bestetik, tutuerian jartzen den kontadoreraino, 9 etxebizitzetara doana) instalazioaren titulartasunean dagokion ehuneko. Horrela, lehenengoak helarazi ahal izango dizkio lehen mailako sareari eta bigarren mailako sarearen parteari lotutako instalazio eta bitarteko materialak (adibidez araztailea) eta, aldi berean Partzuergoari, inbentarioaren ondoren, kudeaketaren agindua formalizatzen denean, Udalaren eta KUUP artean. Hori da agindu honen helburua, Partzuergoaren Estatutuen 34. artikuluen arabera.

**AINZAT HARTU DA.-** Uren ekainaren 23ko 2006/1 Legeren 16 artikuluan xedatutakoa, eta baliabide hidrikoen babesaren helburua hobeto egiten dela kontu-ikuspuntuarekin, eta helburu hori errazago betetzen duela uraren altuko sarea kontrolatzen duen erakundeak.

Eta Kantauriko Urkidetza Ur Partzuergoa arautzen duten Estatutuak, eta Euskadiko Toki Erakundearen apirilaren 7ko 2/2016 Legeko 104 artikulua eta hurrengoak.

**AINZAT HARTU DA.-** Arabako Lurralde Historikoaren Udalbatzen martxoaren 20ko 11/1995 Foru Arauaren 8. artikuluan xedatutakoa. Eta 47. 2 h) artikuluan.



Sektore Publikoko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 8, 11 eta hauekin bat datozen artikuluetan xedatutakoa, baita Tokiko Erregimeneko Oinarrien apirilaren 2ko 7/85 Legeko 47.2 h) eta 55 artikuluetan ere, eta azken hori garatzen duen araudia.

Udalbatzak, 2018ko maiatzaren 17ko osoko bilkuran, aho batez (Udalbatzako 11 zinegotzietatik 10 bertaratu dira), **HONAKO HAU ADOSTU DU:**

**Lehenengoa.**- Onartzea Menagarai-Beotegi Administrazio Batzordearen eskaria. Horren bidez, Udalari eskatu zaio kudeaketa-aginduen figuraren bidez bere gain hartzeko Menagarai-Beotegiko HUAPren, bertara lotutako bigarren mailako edo baxuko sarearen kudeaketa, mantentzea, esplotazioa eta berritzea. Sare horrek zerbitzua ematen die Menagarai-Beotegi 9 etxebizitzari, ikastolari eta udal-igerilekuei. Gainera, Udalak abonatuaren kudeaketa beregain hartzea ere nahi da, eta baita uraren ziklo integrala ere.

Horrela, Udalak ekin diezairoke Kantauriko Urkidetza Ur Partzuergoari (KUUP) berehalako eta ondorengo kudeaketa agintzeari, eta modu horretan KUUPek bere gain hartuko du uraren ziklo integrala.

**Bigarrena.**- Onestea hasierako konpromisoa KUUPi eskatzeko Menagarai-Beotegiko HUAPen altuko saneamendu-sarearen kudeaketa, mantentzea, esplotazioa eta berritzea, eta baita HUAPi lotuta dagoen bigarren mailako edo baxuko sarearen zatia (zerbitzua ematen die Menagarai-Beotegi 9 etxebizitzari, ikastolari eta udal-igerilekuei) eta abonatuaren kudeaketa ere. Horretaz aparte, KUUPek bere gain hartuko ditu, era berean, isurtze-sariaren titulartasuna eta abonatuaren eta bilketaren kudeaketa eta zuzenean bidaliko zaizkie hornikuntza eta saneamendu tarifak Menagarai-Beotegiko etxebizitzaren erabiltzaileei, HUAPi lotuta daudenak. Gainera, tasak likidatuko dira Partzuergoaren dagokion ordenantza fiskalak zehazten duen neurrian eta etxebizitza horiek eta Udalekoak (partzuergoaren kide da) modu berean tratatuko dira. Kudeaketa egiteko agindutako epea 15 urtean ezarriko da, bost urteko epean luza daitekeena, alde guztiak ados badaude. Azkenik, uraren ziklo integrala bere gain hartuko du, kudeaketa-agindu figuraren bidez.

Hori guztia 2017ko otsailaren 23ko Osoko Akordioa betetz, bertan Menagarai-Beotegiko KUUP sartzeko asmoz, adostutako baldintzetan.

**Hirugarrena.**- Onestea Udalari transferitzea Menagarai-Beotegiko Administrazio Batzordeari HUAPean eta tutueria zatiaren (alde batetik, HUAPetik ikastolako eta udal-igerilekuetako ahaidetzara doana eta bestetik, tutuerian jartzen den kontadoreraino, udalerrri honetako 9 etxebizitzari zerbitzua ematen diona) dagokion ehuneko. Bestetik, KUUPi eskaintzea HUAPen eta sareen zatien transferentzia. Kudeaketa-agindua betetzeko eta boterean dagoen bitartean, azken horiek zerbitzua ematen dizkiete aipatutako etxeei, bi administrazioen jabekidetzaren direnak.

KUUPen esku jartzea Menagarai-Beotegiko Udalbatzak onartutako saneamendu-proiektuaren kopia, HUAP eta eraikitako tutueria definitzen dituena. Horrela, kudeaketa-agindua martxan jartzeko ibilbide estrategikoa, eta behar bada, dagokion jarduketaren plana eta industrialdeko sarearen inbentarioa.

**Laugarrena.**- Baimentzea, beharrezkoa balitz, kontadore baten instalazioa, partzuergoko zerbitzu teknikoaren adierazitako puntuan, HUAPtik ikastolara eta udal-igerilekuetako aldageletara doan tutueria barruan. Horrela, bakoitzari dagokion ur-bolumena neurtu ahalko da, dagokien arazketa

zerbitzuaren tarifa kobratzeko eta KUUPi eskatzeko, beharrezkoa izatekotan, haren instalazio bere gain har dezan.

**Bosgarrena.**- KUUPi honakoa eskatzea: organo eskudun batek ebazpena igor dezala, adierazitako baldintzetan kudeaketa-agindua onartzeari buruzkoa, eta horrela izatekotan, Udalari ematea hori martxan jartzeko ibilbide estrategikoa, eta, behar bada, Menagarai-Beotegiko HUAPen jarduketa-plana eta sareen inbentarioa, onartuak izan ahal izateko. Horrela, azpiegiturak berritzeko plana eta beharrezko finantzazio eta pertsonifikazioa elaboratu eta aztertu ostean, onartzeko, behar bada, behin betiko araudiko udal konpromisoa eta azaldutako zerbitzuak kudeatzeko partzuergoko erakundeetan sartzeari. Horri guztia Batzordearen eta Udalaren arteko kudeaketa-agindua hitzarmena formalizatzeko, baita Udalaren eta KUUPen arteko kudeaketa-agindua hitzarmena ere, eta azken hori ALHAOn argitaratzea, eraginkorra izateko.

**Seigarrena.**- Alkateari ahalmena ematea akordio honen eta kudeaketa-aginduaren eraginkortasuna bermatzeko behar diren dokumentu eta izapide guztiak sinatzeko.

**7. Honako hauen berri ematea: udal zenbaketen aktak, gastuen eta sarreraren balantzea, libreten egoera eta 2017ko urriko, azaroko eta abenduak eta 2018ko urtarrileko, otsaileko eta martxoko kredituen aldaketak.**

Ez da gaiari buruzko ezer esan eta Udalbatza kideak jakinaren gainean geratu dira.

**8. Arabako Pentsionistak Lanean Elkarteko proposamenari buruz EH BILDUK aurkeztutako mozioa.**

Nerea andreak (Bildu) komentatu du mozioa pentsionisten kolektiboarena dela eta beren egiten dutela. Guztiak, gehitu du, ezagutzen dute egoera.

Iraida andreak (Aiara Batuz) esan du haren taldearen ustez zuzena dela.

Aurkeztutako proposamena bozkatu dute, eta emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: 5 (3 Bilduk + 2 Aiara Batuz-ek)

Abstentzioak: 4 EAJ-PNVk

Beraz, mozio hau onetsi da:

**ARABAKO PENTSIONISTAK LANEAN** elkarteak eskatzen du azter dadila **MOZIO** hau Aiarako Udalaren Udalbatzan, eta deitzen ditugu Udal-taldeak onar dezatela.

*Pentsiodunok aspaldi nabaritzen ari gara gure pentsioen erosahalmena galtzen ari dela. Estatuko gobernuek egin dituzten ondoz ondoko pentsioen erreformek, PPk nahiz PSOEk, kalte handia egin digute. Gu gara, pentsiodunok, murrizketak nozitzen ari garenak (hilabete bukaerara iristea kostatzen zaigu, eta batzuetan, ezin dezakegu berogailua piztu); bien bitartean, badago dirua bankarentzat, elektrikentzat, enpresarientzat...*

*Pentsiodun gehienok txirotasun atalasearen azpitik kobratzen dugu, eta gero eta zailagoa egiten zaigu duintasunez bizitzea gure bizitzaren azken urteotan, urte luzez lan egin eta kotizatu ondoren. Dirudienek, horrek ez omen die axola gure politikariei, biztanleriaren % 25, pentsiodunok, alegia, bizi dugun egoera arintzeko neurriak ez dutelako hartzen. Dirudienek, horrek ez omen die axola gure*

politikariei, biztanleriaren % 25, pentsiodunok, alegia, bizi dugun egoera arintzeko neurririk ez dutelako hartzen.

*Ez da aurreneko aldia eskatzen duguna aintzakotzat har gaitzatela, duintasunez bizitzen lagako diguten gutxieneko pentsioak berma diezazkigutela. Horren harira, gogoan izan behar dugu pentsiorik kaskarrenak dituzten gehien-gehienak onartezina den zigor bikoitza jasaten duten emakumeak direla.*

*Horregatik guztiagatik, eta uste dugunez BORONDATE POLITIKO BATEZ ari garela, adierazi dugun moduan beste gai batzuetarako badela dirua, UDAL HONI ESKATZEN DIOGU:*

1.- Arbuia dezatela pentsioen % 0,25eko igoera, eta eska dezala erosahalmenari eutsi behar zaiola.

2.- 1.080 €ko gutxieneko pentsioa ezartzea eska dezala, txirotasun-atalasetik irten gaitezen, Euskal Herriari dagokion eran eta Europako Gutun Sozialak ezarria betez (batez besteko soldata haztatuaren % 60), eta hori gauzagarri izango ez den bitartean, eska diezaiola Gasteizko Jaurlaritzari aipatutako kopurua pentsiodun guztiak hileroko eskura dezaten, behar den osagarria ezarri behar dela.

3.- Ezar dadila Euskal Herriko Babes eta Gizarte Segurantzaren sistema, gero eta pertsona adindun gehiagoren pentsio publikoak eta behar dituzten zaintzak berma daitezzen.

4.- Datorren urtean, 2019an, ezarri beharko litzatekeen jasangarritasun-faktorearen ezarpena arbuia dadila, zeinak gure pentsioei murrizketa berria eta handia ekarriko dien.

5.- Bidal diezazkietela Estatuaren Gobernuari eta Gasteizko Jaurlaritzari Udal honek hartutako erabakiak.

## **9. EAJ-PNVk EH BILDUK Arabako Pentsionistak Lanean Elkarrekin bultzatuta pentsioei buruz aurkeztutako mozioari egindako zuzenketa.**

Gentza Alamillo Udaeta jaunak, Aiarako Udaleko EAJ-PNV udal-taldeko bozeramaileak, indarrean dagoen araudiaren babesean, EHBILDUK Arabako Pentsionistak Lanean Elkarrekin bultzatuta pentsioei buruz aurkeztutako mozioaren ZUZENKETA hau aurkeztu du.

### **“ZUZENKETA**

1.- Airako Udalak Espainiako gobernuari honako hauetan gehitutako aldaketak indargabetzeko premia adierazi dio: 5/2013 ELDen aurreratutako erretiroari buruzko 2011-2015 Legislatura, eta, osorik, 23/2013 Legea, Gizarte Segurantzaren pentsio-sistemaren jasangarritasun-faktorea eta errebalorizazio-indizea arautzen dituenak.

2- Aiarako udalak Espainiako gobernuari exijitu dio pentsioen eskuratzeko boterea bermatzeko eta azken horien eguneratzea berreskuratzeko KPIren arabera.

3- Aiarako Udalak Espainiako gobernuari eskatu dio 23/2013 Legean ezarritako iraunkortasun faktorea kentzeko. Azken horrek 2019ko urtarrilaren 1etik erretiro pentsioak murriztuko ditu kohortearen bizi-itxaropenaren arabera.

4- Airako Udalak erreklamatu du erreserba funtsa askatasunez banatzeko debekua lehengoratzeko, %3tik gora. Azken hori azaroaren 29ko 28/2001 Legeak arautzen du, eta salbuespena du 28/2012 ELDren eta ondorengo aurrekontu legeen bidez.

5- Airako Udalak Espainiako gobernuari honako hau premiazkoa dela adierazi dio: Gizarte Segurantzako enplegu irregularraren eta iruzurraren kontrako borroka biziagotzea, sistemaren lortutako irabaziak handitzeko asmoz.

6- Airako udalak Espainiako gobernuari adierazi dio Gizarte Segurantza sisteman berezkoak ez diren gastuak kentzeko premia. Horien artean, honako hauek daude: Gizarte Segurantzako enpresen kotizazioen hobariak eta murrizketak eta pentsioen eta antzeko beste batzuen plan pribatuen hobari fiskalerako neurriak. Hori egin behar da gizarte kontzentrazioaren esparruan aurreztean eta gizarte kontzentrazioan oinarritutako lan-sistema osagarriak bultzatzearen kalterik gabe.

7.- Airako Udalak apustua egin du honako honen alde: sistemaren diru-sarrerak handitzeko Gizarte Segurantzaren finantzaketa zerga-sistematik datozen diru-sarrerekin osatzea.

8.- Airako Udalak haren borondatea adierazi du pentsioen sistema publikoa defendatzeko ongizatearen estatuaren beharrezko lau oinarrietako bat delakoan.

9.- Airako Udalak Espainiako gobernuari exijitu dio Euskal Autonomia Erkidegoari berehala helarazteko Gizarte Segurantzako erregimen ekonomikoaren eskumenak. Hori Euskadiko Autonomia Estatutuak onartu zuen, abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren 18.2 eta xedapen iragankorrean adostutakoaren bidez.”

Nerea andreak (Bildu) komentatu du kontrako botoa emango dutela uste dutelako hor adierazitako ez dela pentsionisten kolektiboak eskatzen duena. Haiek uste dute Euskadin aurrekontu bidez aukera dagoela pentsio horiek osatzeko.

Horren inguruan komentario gehiago ez dagoenez, gaia bozkatu dute eta emaitza honako hau izan da:

Aldeko Botoak, 4 EAJ-PNVk

Kontrako botoak: 5 (3 Bilduk + 2 Aiara Batuz-ek)

Ondorioz, ez da aurkeztutako zuzenketa onartu.

- Eguneko aztergaien zerrendako hurrengo puntuekin jarraitu baino lehen, alkate jaunak proposatu du eguneko aztergaien zerrendatik kanpo dagoen puntu bat gehitzea, premiazkoa delako.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) azaldu du diruzaintzako gerakinei lotutako aurrekontu aldaketa egitea beharrezkoa dela, honako hauetarako aurrekontua handitzeko: eskaner bat erosteko, Murga industrialdeko jariakinen kontrolaren kanonaren gastua ordaindu ahal izateko eta altxatze topografikoa egiteko. Gainera, oinarritzko proiektua ere idatzi behar da, Luiaondoko parkinga egokitze eta, horrela, azken hori al bait arinen bukatuta egoteko, Leader funtsei lotuta Eusko Jaurlaritzaren laguntza eskatzeko asmoz.

Premiazko gaia bozkatu da, eta bertaratutako udalkideek aho batez onartu dute (11 zinegotzitik 9k).

Ondorioz, honako puntua eguneko aztergaien zerrendan gehitu da:

**10.- Udaltzaren osoko bilkurari organo kontu-hartzailearen txostenaren berri ematea, diruzaintzaren gerakinen erabilerari lotutako aurrekontu egonkortasuna ez betetzeari buruzkoa.**

Ez da gaiari buruzko ezer esan eta Udaltzako kideak jakinaren gainean geratu dira.

**11º.- Alkatetza Dekretu hauen berri ematea:**

- 2018/135- ALKATETZA DEKRETUA -VALLE DE LLANTENO ELKARTE ARTISTIKOA.- 2017ko diru-laguntzaren justifikatu gabeko kopurua itzultzeko eskatzea.
- 2018/136 ALKATETZA DEKRETUA--Onestea F/2018/5 zenbakiko fakturen zerrenda.
- 2018/137 ALKATETZA DEKRETUA- - BFA- Diru-laguntza eskatzea 2018. urtean kultura-jarduerak egiteko.
- 2018/138 ALKATETZA DEKRETUA-- Iturrian 7ko etxejabeen elkartea.- Agiri gehiago eskatuz.
- 2018/139 ALKATETZA DEKRETUA-- Gerra zibileko gutunen inguruko informazio publikorako sarbidea
- 2018/140 ALKATETZA DEKRETUA-- Iturrian 7ko etxejabeen elkartea.- Hondakinak kudeatzeagatiko bermea eskatuz.
- 2018/141 ALKATETZA DEKRETUA-- Arespalditzako saneamenduko planoen inguruan eskatutako informazio publikorako sarbidea.
- 2018/142 ALKATETZA DEKRETUA-- J.M.R.B.-2018an kontratupeko langileak kontratatzea.
- 2018/143 ALKATETZA DEKRETUA-- I.A.Z.- 2018an kontratupeko langileak kontratatzea.
- 2018/144 ALKATETZA DEKRETUA-- M.M.G.- Agiri gehiago eskatuz.
- 2018/145 ALKATETZA DEKRETUA-- Idazkari kontu-hartzaile lanpostua ordezkatzeko poltsa sortzeko oinarriak aldatzea
- 2018/146 ALKATETZA DEKRETUA-- J.A.G.J.- Aparkatzeko txartela ematea
- 2018/147 ALKATETZA DEKRETUA-- Retes de Llantenoko A. Batzordea.- Udalaren baimena ematea herriko saneamendu-sarean obrak egiteko.
- 2018/148 ALKATETZA DEKRETUA-- Kexaako A. Batzordea.- Udalaren obra-baimena ematea argizatze publikoan luminariak ordezkatzeko.
- 2018/149 ALKATETZA DEKRETUA-- Kreditua gaitzeko espedientea onestea.
- 2018/150 ALKATETZA DEKRETUA-- BFari diru-laguntza eskatzea 2018an euskara sustatzeko jarduerak egiteko.
- 2018/151 ALKATETZA DEKRETUA-- Llantenoko A. Batzordea.- Udalaren obra-baimena ematea Menagaraiko hilerriaren barrualdea egokitzeko.
- 2018/152 ALKATETZA DEKRETUA-- Llantenoko A. Batzordea.- Udalaren obra-baimena ematea hilerria konpontzeko.
- 2018/153 ALKATETZA DEKRETUA- - PROMOCIONES Y PAVIMENTACIONES BALGORZA SA. - 1. ziurtatzea eta faktura onestea.
- 2018/154 ALKATETZA DEKRETUA—P. y E. SC.- Hondakinak kudeatzeagatiko bermea eskatuz.
- 2018/155 ALKATETZA DEKRETUA-- Administrari lanpostuaren izendapena.
- 2018/156 ALKATETZA DEKRETUA-- Los Arcos de Quejana SL.- E. Caserío Los Arcos de Quejana plana onesteko izapidetzeari uko egin diola ulertu da.
- 2018/157 ALKATETZA DEKRETUA-- A.H.C.- Etxegoien etxe bat eraikitze lanetan ekarritako lur-kopuruak eta handitze-lanak legezztatzea.
- 2018/158 ALKATETZA DEKRETUA-- J.U.H.- Obretarako lizentziaren espedientea dela-eta, dokumentu gehiago eskatzea.
- 2018/159 ALKATETZA DEKRETUA-- Viesgo Energia SL.- 2018ko 1. hiruhilekoan zorua okupatzeagatiko tasa likidatzea.
- 2018/160 ALKATETZA DEKRETUA-- EDP COMERCIALIZADORA SAU.- 2018ko 1. hiruhilekoan zorua okupatzeagatiko tasa likidatzea.
- 2018/161 ALKATETZA DEKRETUA-- J.U.H.- Eraikitze- eta eraiste-hondakinak kudeatzeagatiko bermea eskatuz.
- 2018/162 ALKATETZA DEKRETUA-- A.A.A.- Arriskutsuak izan daitezkeen txakurrak edukitzeko baimena ematea.
- 2018/163 ALKATETZA DEKRETUA-- Kreditu gehigarriak onestea.

2018/164 ALKATETZA DEKRETUA--  
2018/165 ALKATETZA DEKRETUA-- Ondorerik gabe uztea idazkari kontu-hartzailearen ordezkapenak egiteko lan-poltsa sortzeko deialdia.  
2018/166 ALKATETZA DEKRETUA-- F.M.U.- Lursailak banatzeko eta batzeko udal-baimena ematea  
2018/167 ALKATETZA DEKRETUA-- R.V.M.- Obretarako lizentziaren espedientea dela-eta, dokumentu gehiago eskatzea  
2018/168 ALKATETZA DEKRETUA-- Arespalditzako A. Batzordea. - Udalaren obra-baimena ematea Arana bidea garbitzeko.  
2018/169 ALKATETZA DEKRETUA-- I.G.F.- Obrak egiteko udal-baimena ematea etxebizitza bateko bainugela konpontzeko.  
2018/170 ALKATETZA DEKRETUA-- MC.B.F.- Biztanleen udal-errodan bidegabe izena emateagatiko baja-espedientea irekitzea.  
2018/171 ALKATETZA DEKRETUA- M.D.I.I.- Obrak egiteko udal-baimena ematea etxebizitza bateko teilatua teilaberritzeko.  
2018/172 ALKATETZA DEKRETUA-- Onestea F/2018/6 zenbakiko fakturen zerrenda.

19:45 direnean, Susana andrea osoko bilkurara itzuli da.

Iraida andreak (Aiara Batuz), 156/18 dekretuari buruz galdetu du, ea haiek eskatu duten.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) erantzun du baietz, eskatu dutela, alegazio bat egin baitiote Hiri Ordenamenduko Plan Orokorrari.

## **12º.- Galde-eskeak.**

\* Gentza jaunak (EAJ-PNV) esan du duela astebete Eusko Jaurlaritzakoek esan zutela maiatzaren 25ean Taldearen Bake Epaitegien Idazkaritzan kudeaketa bere gain hartzen hasiko direla.

\* Iraida andreak (Aiara Batuz) adierazi du Bilduk egindako eskaeraren harira, aurreko osoko bilkuran egindakoa, eztabaidatu ondoren honako hau dutela erantzuteko.

*Aiara Batuz- Trabajando por los pueblos -en erantzuna BILDUK joan den apirileko ohiko osoko bilkuran egindako eskaerari:*

*Aiara Batuz-Trabajando por los pueblos herritar-talde bat da, 2011-2015 legegintzaldian sortu zena. Hautesle-taldetzat dauka bere burua, legeak hala eskatzen baitu, baina bere bidea ez da talde politiko baten parekoa. Ez badago herritarren gutxieneko berme bat, taldeak ezingo luke hor egon, hauteskundeen egunean, Udalbatzako kide izateko.*

*Aiara Batuz ez da apolitikoa; Aiarako herritarrei zuzenean eragiten dieten gaien inguruko udal-kudeaketako erabakiak hartzeko eratu zen. Aiara Batuz ez da alderdikoia. Gai bakoitza aztertzen du, eta udal-kudeaketaren inguruko kontu guztietan jarrera hartzen du. Zaila izan daiteke ulertzea eskuarki ez iritzia ematea udalaz gaindiko gaietan; taldearen erabaki bat da, eta ez da beharrezkoa ulertzea, besterik gabe errespetatu egin behar da.*

*Talde moduan ez dugu udalerriaz besteko ordezkariarik, eta proposatzen diren udalaz gaindiko gaien bidez komunikabideen bidez baizik ez dugu. Galdeenezake, beste alderdi politiko batzuei, nori egiten diezue kudeaketa alderdikoia? Gure iritzia izan dezakegu, eta gai eta mozio bakoitzari buruz eztabaidatu, baina ez dugu gaitasunik, hautets-talde moduan, gai horiek informazio aseptikoarekin aztertzeko.*

*Hauteskundeetako emaitzak ikusita, orduan, Udalari zuzenean eragiten ez dioten mozio guztietan abstenitzea erabaki genuen. Oraingo estrategia kontra bozkatzea da, aukera emateko, edo ia behartzeko, bi taldeak, BILDUK eta EAJ-PNV, mozioak adosten saiatzera. Uste dugu jarrera honekin EZ diogula erabateko eskua ematen gobernu-taldeari zinegotzi bat gehiago izateagatik, kalkulatu dugu errazagoa dela haien mozioek beti ez irabaztea. Egia da horretarako BILDUK ere EAJ-PNVk aurkeztutako mozioaren kontra bozkatu behar duela, eta hura baloratu ondoren, BILDUK jakingo du zer egin. Uste dugu oraingo jarrerak aukerak ematen dituela.*

*Honaino iritsita, uste dugu egoera berean gaudela; ez da ulertzen gure jarrera. Gaurko osoko bilkuran emandako erantzunaren bidez ez dugu nahi Udalbatzako gainerakoek ulertzea, baizik eta errespetua besterik ez dugu eskatzen hautets-taldeak sortu zenean eta legegintzaldi hauetan egindako bidean hartutako erabakien gainean. "*

Lauren jaunak (Bildu) adierazi du zaila dela gai politiko bat eta politikoa ez den bat bereiztea. Joan den osoko bilkuran, Aiara Batuz-ek kontsultaren alde bozkatu zuen; ordea, aurreko osoko bilkuretan, Kataluniako espexetik ateratzeen kontra bozkatu zuten.

Iratxe andreak (Aiara Batuz) erantzun du Kataluniako gaiak ez diola eragiten udal-kudeaketari.

Nerea andreak (Bildu) gehitu du bere taldeak beti esan duela iritzia errespetatzen zuela baina hausnartzeko deia egiten zutela; izan ere, badaude udalaz gaidiko gaiak, eta baliteke horiek ez eragitea zuzenean Aiarari, baina, elkartasunagatik, agian onetsi egin behar dira.

\* Esteban jaunak (Bildu) sarrera-erregistroan dagoen Caser Segurosen kopuru-erreklamazio bategatik galdetu du.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) erantzun du uholde bat izan zela Luiaondoko bulegoa dagoen komunitatean, udal-bulegoa urak hartu zuen, eta deklaratzera deitu dituzte udal-aparejadorea eta bera.

\* Esteban jaunak (Bildu) galdetu du ea zerbait egin den Tramame y Remairen espedientean, ez baitute ezeren berri.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) erantzun du bilera bat eduki zutela Eusko Jaurlaritzan, eta esan zutela espediente zehatzaile bat zegoela irekita, eta ikusiko zela norantz joko zuen.

Esteban jaunak (Bildu) gehitu du oraindik ere materiala sartzen ari direla lursailean.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) erantzun du badakitela hori, eta helarazia diotela Eusko Jaurlaritzari.

Esteban jaunak (Bildu) esan du, HAPOn aurkeztutako alegazioak bidaltzearen inguruan, haiek ez dutela ezer jaso, eta mespretxatzen ari zaizkiela. Iñigok gehitu du aurreko osoko bilkuran azaldu zuela eskaneatze-lan bat egin behar zela, baina udaletxera joan zenean ohartu zela dena eskaneatuta zegoela.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) esan du ez dela inor mespretxatzen. Udalak dauzkan lan-erritmoak dauzka, eta berari ez zaio gustatzen inork deitzea funtzionarioen bati ezer agintzeko.

Iñigok eskaneatzearen inguruan aipatutakoari dagokionez, esan nahi zuena zen datu pertsonalak ezabatu behar zirenez berriz eskaneatu behar zela datu horiek gabe.

Idazkariak azaldu du, aurreko aldiak hitz egin zen moduan, Datuak Babesteko Euskal Agentziari galdetu zaiola, eta erantzun dutela pertsonak identifikatzeko datuak besterik ezin dela eman, erabakia hartzeko behar-beharrezkoak direnak. Beraz, kasu honetan, izenak, jakinarazpenetarako helbideak, NA zk., telefonoak eta beste datuak ezabatu beharko lirakeke, alegazioa egiten ari den lursaila izan ezik.

Iñigo jaunak (EAJ-PNV) adierazi du batzordean adierazi zela talde idazleak ekarpenak jasotzeko eta haien laburpena egiteko lana eta erantzuna egingo zituela. Horregatik, esan zen lan hori eginda egotean zinegotzi guztiei helaraziko zitzaizela.

Nerea andreak (Bildu) komentatu du ezkutatzeko edo gutxiesteko asmoa ez duen arren, bai esan zuela dokumentuak ez zeudela eskaneatuta.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) erantzun gaizki-ulertua izan dela, Iñigok esan nahi zuena zen berriro eskaneatu, eta datuak kendu behar zirela. Gainera, oroitarazi du txostena zinegotzi guztien esku dagoela nahi dutenean ikustera etor daitezen.

Esteban jaunak (Bildu) oraingo udalbatzaren grabaketa eskatu du.

\* Nerea Andreak (Bildu) galdetu du Udalak eskatu duen bideo sustatzaile horren aurrekontuaren inguruan eta herrien argazkien inguruan.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) erantzun du bi aurrekontu zeudela, baina ez dela gogoratzen zenbateko zehatzez.

Nerea andreak (Bildu) komentatu du hurrengo batzorderako utziko dutela.

\* Nerea andreak galdetu du Iraidak aurreko osoko bilkuran aipatu zuen konferentziaren inguruan, ea zinegotziren bat bertaratuko den.

Gentza jaunak baietz erantzun du, Irida andreak eskatu baitzuen.

Jorrazteko beste aztergairik ez dagoenez, alkate-udalburuak bilera bukatutzat eman du hogeiak eta hamar minutu zirenean, eta aztertutako guztia eta hartutako erabakiak jasota gera daitezen, akta hau egin dut eta neuk, idazkariak, egiaztatzen dut, Aiaran, bi mila eta hamazortziko maiatzaren hamazazpian.

O.E.

ALKATE-UDALBURUA,

IDAZKARIA,

Sin.: Gentza Alamillo Udaeta.

Sin.: Naiara Lazpita Marcos.